

3.2 GAIAREN LANKETA

> Nire etxea



- Etxearen bikote-jolasa

Helburuak

- Etxeko gelen eta altzarien hiztegia ikastea.
- Etxeko gelen eta altzarien hiztegia erabiltzea.

Prozedura

- Jolas honen helburua etxeko gelen eta altzarien irudiak eta horri dagozkion hitzak aurkitzea da; irudi-hitza elkarketa egitea, alegia.
- Pausuak:
 - Fitxa guztiak mahai gainean jarri ahuspez.
 - Ume guztiak fitxen inguruan jarri.
 - Ume batek fitxa bat jasoko du eta izendatu (irudian dagoena zer den esan edo idatzita dagoen hitza irakurri); beste fitxa bat jaso eta izendatu. Irudia eta irudiari dagokion hitza badira, gorde egingo ditu, bikotea lortu du-eta. Kasu honetan, berriro bere txanda izango da eta beste bi irudi jasoko ditu.
 - Bikotea lortu ez badu, berriro utziko ditu mahai gainean lehen zeuden tokian, eta, hurrengo umearen txanda izango da.
 - Bikote gehien lortzen dituen umea izango da irabazlea.